

ERREPORTAJEA

Kokoe K.T. :
tabernariaren
1 00. tira

GEHIGARRIA

**Kale-zulotik
baserrira**

BERBETAN

**Celso Romero
Galiza Etxeko
presidentea**

KIROLA

'Unceta Elgoibar'
**Espainiako
Eskubaloi
Txapelketako
fase finalean**

BARREN

2000ko maiatzaren Sa
VIII. urtea 319. zkia

E G O I B A R K O A S T E K A R I A



Barrak, Birrak eta Barreak
100 barre barra atzean

"Begitik sartzen den umorea egiten saiatzen gara"
(Antxon Alvarez eta Iban Barrenetxea)

Ikastola

Zure etorkizuna gauzatzen hasi arte
18 urte arte



Batxilergorako aurrematrikula epea:
Maiatzaren 2tik 12ra • telefonoa: 943 744 441



KEXAK




- Urasandi kalean bizi den emakume batek honako kexa hau helarazi digu, "Errepedearen bi aldeetan autoa aparkatzeko ohitura aldebesa dauka gidari askok Urasandi kalean, nahiz eta alde batean bakarrik izan legezkoa. Hori gutxi balitz, espaloi gainean aparkatzen dute gehienek. Ni moduan haurraren kotxetxoarekin pasa behar dugunontzat ezinezkoa da horrelako oztopoak gainditzea eta errepedetik pasa behar izaten dugu, horrek dakarren arriskuarekin".



111111111

- Elgoibarko Izarrako GAZ-T taldeko zuzendariak begiraleak txalotu nahi ditu, "begirale guztiak bihotzez txalotu nahi nituzke egin duten lan zoragarria dela-eta. Bide batez, gazte guztiak animatu nahi nituzke hurrengo batean ere antolatzen ditugun ekintzetan parte hartzeko".
- Herritar talde batek IMHko mantenimenduko Fernando, Aitor eta Andres txalotu nahi ditu, "Institutuko faxada eta espaloi guztiak ondo garbitzeaz gain, Alkorta eta Mintxetara doazen bideak ere txukun-txukun laga ditu hirukote honek-eta. Bertan egunero gabiltzan herritar talde bat gara eta asko eskertzen dugu egin dutena".



BAI, ESAN?



Eli Aizpuru

BARREneko zuzendari berria

Otsaileko ale batean, BARREne zuzendari baten beharreen geundela-eta, iragarki bat ipini genuen. Eta jandik, zuzendari berria dugu gurekin. **Eli Aizpuru** da bera eta dionez, "kasualitate hutsez" iritsi omen da Elgoibarren lan egitera. Lagun baten aitak, lanean ari zen bitartean, Arrate Irratian entzun omen zuen honen berri eta alabari esan. Beraren berri izan dezazuen hitz, batzuk egin ditugu Elirekin eta honako hau erantzun digu:

- Nor da Eli Aizpuru?

Sinpleki esanda, 27 urteko azpeitiar bat. Beno, nuarbertarra, (Azpeititik zazpi kilometrotara dagoen auzo txiki bat da). Egun batean kazetaritza ikasketak egitea erabaki zuena eta piskanaka-piskanaka, lan eginez BARREnera iritsi dena.

- Zergatik kazetaritza ikasketak?

Neuk ere ez dakit. Ez dut zenbaitek bezala txikitatik "bokazio" hori izan. Beti gustatu izan zait idaztea, eta irakurtzea are gaiago, horregatik izango da agian. Bestalde, zientzia eta matematikak ez dira egundo ere "fuertea" izan eta "Ietra" aldetik jotzea ere normalagoa zen nire kasuan.

- Zer nolako lanak egin dituzu orain arte?

Ikasketak duela bost urte amaitu nituen eta harrez gero hainbat gauza egin ditut: "El Mundo Deportivo" egunkariko korrespontsal gisa, Azpeitiko aldizkarian, Loiola Irratian, e.a.

- Zer espero duzu elgoibatarrengandik eta zer eskainiko diezu zeuk?

Hasiera batean, beraiengandik pazientzia pittin bat espero dut. Herria ezagutzen hasi banaiz ere, bertako bizi-modua eta herritarren arteko harremanen berri jakiteak denbora gehiago eramango baitit. Nire aldetik, berriz, astero-astero aldizkariaren indarra eta interesa mantentzen saiatuko naiz. Lan talde osoak daukagun erronka da hau, ez nirea bakarrik: ostiralero Elgoibarko eta auzoetako jendea BARREne zai egotea, jakinmina piztea eta informazio hori denen eskuetara ondo eta garbi iristea. Hori bideratzeko nago eta behar den bezala egitea espero dut.



Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

943 74 41 12

Publizitatea:
w 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

HeIbide informatikoa:

www.ihardurIcom/barren

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAourzAlizA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Eli Aizpuru
KAZETARIAK	Irati Agirreazaldegia, Asier Orbea
Pu BLIZITATEA	Andoitz Agirregomezkorta
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIGA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Ainhoa Ardonegi, Aitor Argarale, Idoia Arozena, Aitzol Arriola, Marlin Dominguez, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorrili, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Alntzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguena, Iban Urizar, Amala Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
BANAKETA ARDURADUNA	I manal Larrañaga
EUSKARA ZUZENTZAILEA	Ibon Arriola
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



*Ellaigizarte, ekintza
obra sozial*

4hdANOBAT

4he©UTI
GRUPO DANOBAT

Regionalak herriari

adira harnar une hain gogoko du-
Ilgun kirola praktikatu nahirik C.D.
Elgoibarko koloreak gainean daramatza-
gula. Gaur egun I. Regionaleko katego-
rian eta orain gutxira arte mailaz igotze-
ko aukerak eduki ditugun talde bat gara.
Lehenengo Lerunen eta orain Mintxe-
tan, klub honetan bizi izan ditugu gure
poztasun eta penak azken urteotan, gaur
aurkeztu nahi dugun egoera jasanezina
bihurtu den momenturaino.

Hasteko, gure desadostasuna enfoka-
tu nahi dugu, zeina oraingo direktibaren-
ganakoa den, eta ez klubarekikoa. Gure
iritziz beren jarrera eta erabaki asko ez
dira batere egokiak izan, hala nola:

Ilusio faltsuak igorri zizkiguten go-
ralco bideak zabalduz eta geroago zapuz-
tuz.

Klub honen baitan mezpretxatuak
sentitu gara garai batetik honantz eta gu-
re hitzek ez dute oihartzunik eduki hartu
diren erabakietan.

Jokalari oro behartua izan da fami-
liako bat bazkide egitera eta hau bete ez
dutenek hainbat eragozpen izan dituzte
urtean zehar.

Atezainek beren poltsikotik ordaindu
behar izan dute postu honetarako espezi-
fikoa den materialaren zati handi bat.

Azkenean lortu ez duten arren, entre-
natzalea behartu nahi izan zuten katego-
ria baxuago bateko jokalaririk bat partida
batzutan hasierako hamaikakoan zelai-
ratzera.

Baina benetan erabaki garrantzitsu
bat hartzera bultzatu gaituen gertaera
2000-4-14ean Pedrusko talde elgoihar-
tanaren aurka jokatu genueneko da.
Atsedendian direktibo bat aldageletan
agertu eta klubaren izenean partida gal-
dutzat ematea proposatu zigun era me-
hatxugarri batean. Jokalariok eta entre-
natzaleak aho batez adierazi genuen ez
geundela horretarako inola ere prest.

Gertaera negargarri honen aurrean
eta aurretik aipatuak ahaztu ezinik, talde
osoak (entrenatzaileak barne) aurtengo
denboraldia amaitutzat ematea erabaki
dugu eta ez bueltatzea gauzak guztiz ez
badira aldatzen.

Aupa Elgoibar, baina horrela ez!

Elgoibarko I. Regionaleko
futbol taldea

Herritarreill nialetak prest?

Igoibarko Udala herriarena ote,
.1:dedo herria Udalarena? Udalaren
lana herritanen benetako arazoei au-
rre egitea ote, edo bere inguruan bizi
den jendearen arazoak konpontzea
ote?

Udaletxeko jauntxoek lau urtean
behin gure albora etorri eta hau diote:
Elgoibarren anantzale kale bat behar
duzue, Mintxeta eta polikiroldegia bat
behar dituzue eta bla, bla, bla... Baina
herritarrok Elgoibarren bizitzeko au-
kerak gero eta murriztagoak direla ar-
gi dakigu eta hau dena gure alkate
jaunaren "politika" hutsari eskertu be-
har zaio.

Herritarren arazo larri eta gordin
bat, henitanok gure herrian etxebizi-
tzarik ezin eskura dezakegula da. Egin
diren azken etxeen salneurria 20 mi-
lioikoa da eta 170m² dituzte. Horietaz
aparte 600 etxe huts inguru dago he-
rrian. Lotsagarria. Nork ez du familia-
koren bat kanpoko herri batera bizi-
tzera joan dena; prezio berean kostan
edo herri handiago batean bizitzeko
aukera topatu duelako? Garate jauna-
ren erantzun bakarra zera da: Kreditu
bihurtu hadi edo maleta prepara ezak.

Baina Udal honi alperrik da herri-
tanen benetako arazoak zein diren
esatea, lanpetuta edo izerdi patsetan
bukatzen baitituzte lan orduak.

Hori bai, goizero udaletxera sartu
orduko egunkaria erostez ez dira se-
kula ahaztuko. Segi herritarrentzat la-
nean. Hau da aurpegia!

Gutun Sozialaren Aldeko
Piaforma

BARENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskulitz guztiek ondo identifikatuta egon dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu dalu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.



Barrak efa, Barreak:

100 barre barra atzeon

Honezkerok gehienok ezagutuko dituzue Joxe tabenaria, eta honen taberna bitxiaren barra aurretik pasadiren era guztietako bezeroak. Gutriagok jakingo duzuen, lapitzaren atzeko aldean nor ezkututzen den izango da. Jakizue bada, KOKOE Konziki Elkarteko

Iban Barrenetxea eta Antxon Alvarez direla "Barrak Birrak eta Barreak" komikiaren egileak. Duela 2 urte hasi ziren barra atzeko istorioekin eta konturatu gabe 100. komiki tirara ailegatu dira. Beraiekin berba egin dugu kondkiati buruz.

Barrak Birrak eta Barreak 100. zenbakira heldu da. Pentsatzen al zenuten honaino iristea?

Ez, ezta pentsatu ere. Gu izan gara lehenak harritzen. Hasieran ez genuen uste 100 tira egiteko gai izango ginenik. Astero gaiak eta txistek ateratzea zaila da. Norberaren interesa mantentzea ere ez da erraza. Gustura aritu gara ordea, pozik gaude egindakoarekin eta jarraitzeko prest.

Lehenengotik 100.era eboluzio handia izan al du komikiak?

Bai, lehenengo tirak ikustea besterik ez dago, ez dute zerikusirik orain egiten ditugunekin. Estiloa eta umorea tirak egin ahala finkatuz joan gara. Hasieran 3 biñeta egiten genituen eta orain, berriez, bakarra. Joxek ere emazte eta seme bat zituen lehen.

Nola definituko zenukete zuen umorea?

Eguneroko gauza eta egoera arruntak mugara eramaten ditugu, absurdora, eta taberna giroan kokatu. Dena egin ematen ez duen umorea egiten dugula uste dut. Irakurleak ere ulertzeko ahalegina egin behar du. Aurrez gertatu dena eta ondoren gertatuko dena argitu behar ditu. Agian, horregatik badugu beldur piska bat gure txistek jendearengana ailegatzaren ala ez. Badakigu eta onartzen dugu jende askori ez zaio gure komikia gustatzen, baina gustatzen zaie biziki gustatzen zaiela uste dugu.

Nola sortu zitzaizuen tira hau egiteko ideia?

BARRENen azaldu zen lehen komikia, 'harrigonigoikoe-rrotaberritarrak' izan zen. Gero. 'Kixmi' etoni zen. Guk zerbait ezberdina egitea nahi genuen. Hasieratik argi genuen pertsonaiak taberna batean kokatzea nahi genuela. Tabernan edozein sar edo aurki daiteke, eta istorioak edo txistek sortzeko aukera asko eskaintzen ditu. Era guztietako pertsonaiak pasa dira tabematik: martzianoak, *Moby Diak*, *Groucho Marx*, *Napoleon*, *Kaf-* beti aipatzen dugu txantxetan, gure komikiak clibertitzeaz gain hezi ere egiten duela.

Bion artean egiten duzue komikia. Nola banatzen duzue lana?

Umorea Antxonon kontua da, berak ideiak ematen ditu eta nik marraztu. Ideiak paperera eramaterakoan garrantzitsuen marraztu behar ditue-

naren gustukoa izatea da. Izan ere, haurrak egitea eta haztea modukoa da: egin erraz egiten dira, baina gero haztea kosta egiten da. Komikiak egiteko elkartzen garenean 4-5 tira egiten ditugu jarraian. Batzartan aurrez pentsatutako gidoiak eramaten ditugu, baina gehienetan inspirazioa izaten dugu lagun edo baita "birra" batzuk ere. Behin-betiko tira ordenagailuan egiten dut, inoiz marraztu gabe nituen gauzak manaztu behar izan baititut, zoologiko oso bat gutxienez.

1 Antzerako umorea al duzue gustuko?

Ez, nahiko ezberdinak garelako uste dut. Batari eta hesteari inetzen zaizkigun txistek ezberdinak dira, ettaz antzeman daiteke batak ala besteak eginak izan diren.

1 Barrea eragitea zaila al da?

Bai, zaila da barre eragitea, are gehiago istorioak garatzeko bifieta bat bezalako leku laburra izanik. Hala ere, gure asmoa ez da barre eragitea, inpresio bat edo irriparra sortzea baizik. Begitik sartzen den umorea egiten saiatzen gara, irakurterraza, jendea testu gehiegirekin gogaitu gabe.

1 Egunkarietan agertzen diren tira komikoetatik zein duzue gustukoena?

Gary Lars, son izeneko kornikigile baten jarmitzaile suetak gara, eta bere eragina nabarmena da gugan. Pertsonen jokabideak dituzten animaliak eta egoera absurdoak gogoko ditu. 'El Pais' egunkariko astekarrian argitaratu izan dute, baina ez da oso eza-guna inguruotan.

"Eguneroko gauza eta egoera arruntak mugara, absurdora, eramaten ditugu eta taberna giroan kokatu"





DAVID GARRIDO



Aste honetan bertan 100. komiki tirara ailegatu direnez, KOKOEko 9 lagunek Joxe tabernariaren beste horrenbeste bertsio prestatu dituzte omenaldi gisa.





Barrak, Birrak eta Barreak



NAIRO IBARRA






EAJ/PNV-EA alderdien eta ETA-ren arteko "paktea" dela eta ea dela...

Zer iruditzen zalzu alderdi politikoei ETArekin zuzenean hitz egitea?



ALEJANDRO DEL REY
37 urte, forjadorea

Oso ongi iruditzen zait. Hitz eginaz konpondu behar dira gauzak. Jende aurrean etsaiak direla dirudi, baina gero elkarrekin ikusten dira alderdi politikoetako ordezkariak.



JOSE GONZALEZ
73 urte, jubilatua

Zuzena dela iruditzen zait. Beti ere akordio batera heltzen badira eta Euskal Herriko egoera penagarriari aurre egiteko baldin bada, elkarriketak onak direla uste dut.



DAN FANLO
19 urte, igeltseroa

Hitz egitea ona izan daiteke, bai alderdi politikoei edo baita beste norbaitekin ere, nahiz eta soluzioa ez izan. Uste dut paktoen berri jakin egin beharko genukeela.



NAGORE BASRARAN
19 urte, ikaslea

Ondo. Posible izango balitz berriz su-etenera heltzea gauzak hobeto joan daitezkeen, ondo ikusten dot. Danok nahi dogu gauzak arreglatzea eta gu bakian uztea.



AMAIA PAGOAGA
30 urte, enpresaria

Konponbidia topatzeko eitzen dan guztia ondo iruditzen jata. Bai partiduek eitzen dabena, baitxa kaleko jende arruntak eindakua ere.



ANDONE ERADSKIN
62 urte, etxekoandrea

Horrela, zuzenean hitz egin behar dela uste dut. Baina paktoak sekretuan gorde behar direla iruditzen zait eta ez badira ondo atera amaitu eta kitto.

HERRI-GAİN
ERRETEGIA

San Pedro auzoa, 4
s 943 74 30 40 ELGOIBAR

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal

URKIDI
AHOLKULARITZA
ITT ERGOS ASEGUROAK

Kalamua, 12
ELGOIBAR
Tel-Faxa:
943 74 1 8 91

KAFETEGIA
943 74 42 65

ibillf 1 DEGIRA



10/1)6 4gP (224 Gr9J/.c)/t


LOPEZ goxoki dendakoa

- Gauza gozoz inguratuta egoteak ez al dizu tentaziorik ematen? - Batzutan bai. Lehen oso litxarrera nintzen, baina orain jende gutxi dagoenean bakarrik jaten ditut gozoak.
- Txokolatzeko palmera bat ala bakailaua saltsa berdean? - Bakailaua saltsa berdean.
- Ezagutzen al duzu gozoak atsegin ez ffituen inor? - Ez, jeneralean denei gustatzen zaizkie.
- Zure bizitzako momenturik gozoena? - Orain dela urte asko klinikatik irten nintzen momentua.
- Eta garratzena? - Anaia kanpora joan zenekoa.
- Azukrea beharrezkoa al da bizitza garratz hau gozatzeko? - Baietz uste dut.
- Txokolatea boiloarekin ala ogiarekin? - Ogiarekin.
- Zein irlatako palmera'ren azpian egon nahi zenuke? - Orain momentuan, Mexikon.
- Zerbaitek utzi al zaitu izoztuta? - Bai, pertsonen hipokresiak.
- Pertsona enpalagoso bat. - Gran Hermano saioko Zaragozanao.
- Zure bizitzako zein momentu luzatuko zenuke txikle bat bailitzan? - Anaia bisitatzera Mexikora behin joan nintzen eta 14 egun haiek luzatuko nituzke,
- Donutsak bezain borobil atera al zaizu zerbait bizitzan? - Nire familia eta dauzkadan erlazioak, lagunak.
- Elgoibarko zein txokok ekartzen dizkiozu oroitzapen gozoak? - Plaza Txikiak. Txikitatik etxe ondoan han ibili izan naiz-eta.
- Txikleak azukredunak ala gabeak? - Azukrerik gabeak.
- Zinera paiomitekin joaten diren horietakoa al zara? - Orain gauez joaten naiz eta ez ditut eramaten, baina gustatzen zaizkit.
- Herriko zein lekutan eraikiko zenuke txokolatzeko etxetxoa? - San Pedro bailaran. Oso polita da eta bertatik herri guztia ikusten da.
- Usain gozo bat. - Napolitanarena.




I. URTEURRENA

1999ko maiatzaren 1ean, 77 urte zituela hil zen
IGNACIO ZABALETA ARAKISTAINen oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 6, arratsaldeko 19:00etan.
Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

1999ko maiatzaren 2an, 70 urte zituela hil zen
PILAR ZULAIKA URRUTIAren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Mendaroko
Azpilgoetako elizan igandean, hilak 7, goizeko 11:00etan.
Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Elgoibarko Gurutze Gorria urgentziazko osasun garraiorako sarean sartu da

Anbulantzia herrian bertan izateak zerbitzua azkartuko du

Elgoibarko Gurutze Gorria, Bergarako eta Donostiako delegazioekin batera Eusko Jaurlaritzako urgentziazko osasun garraiorako sarean sartu da. Hemendik aurrera SOS Deiak zerbitzuan egongo dira eta 24 orduko zerbitzua eskainiko dute. Beraz, 112 telefonora egingdako deiak hartu ahal izango dituzte eta gure zonaldeari dagokion abisua denean, erantzun egin beharko dute Elgoibarko bolondresek beharrezko laguntza emanaz. Anbulantzia Elgoibarren bertan egonik, bere beharra izanez gero azkarrago iritsiko da.

Gizarte laguntza

Elgoibarko Gurutze Gorriak lehenago sare honetatik kanpo geratu zen



Elgoibarko Gurutze Gorrian 35 bolondres eta bi ambulanzia daude.

arren, ez dio lan egiteari utzi. Edadeten laguntza, gaixoen garraioa, kirol ekitaldien zaintza... izan dira besteak heste beraien ardurak. Hala ere, sare honetan sartu nahi zuten eta pozez hartu dute berria. Eusko Jaurlaritzak sarean sartzeko gutxienez 20

bolondres eta bi ambulanzia izatea eskatzen du. Elgoibarko Gurutze Gorrian 35 bolondres eta bi ambulanzia dituzte, baina batek erabilerarako onartutako 8 urteak pasatu dituzenez zerbitzuetik kanpo dago. Besteak dagoeneko 7 urte bete ditu. Nabarmena da, beraz, Elgoibarko Gurutze Gorriak ambulanziaz aldatzeko beharra duela. Dena den, beharra izanez gero, inguruko herrietako Gurutze Gorriko ambulanziaz ere erabil ditzakete.

Laguntza azkarra eta hobea

Urgentziazko osasun garraiorako sarean sartzeak zerbitzua azkartzeaz gain, hobetu ere egingo duela adierazi digu Mila Picaza Elgoibarko Gurutze Gorriko buruak. "Bolondresak urgentzietarako prestatuko dira sare honetan sartu ondoren".

• Irukurutzeta eguna izango da maiatzaren 7an

Atsedeen txabolak, Txurrumilo K.T.ak eta Kapirixo Elkartek Bergara, Azkoitia, Soralueze eta Elgoibarko Udalen laguntzaz antolatuta, datorren igandean, maiatzaren 7an, Irukurutzeta eguna ospatuko da izen bereko mendian. Goizeko 11:00etan Pago Bedeinkatun meza izango da eta meza ostean salda banatuko dute. Ondoren, 13:30ean, Irukurutzetara igoko dira eta bertan norberak eramandako bazkaria jango dute. Bazkal ostean erromeria izango da trikitalariek. Edonor joan daiteke eta antolatzaileek mendizaleei dei egiten diete igandean Trukurutzetara gerturatzeko.

Holdo Lizarralde "Oficios Traccionales IV" kaleratu du


Desagertutako lanbideen testigantza da lan hau



Koldo Lizarralde historiagileak, Carmelo Urdangarinek eta Jose Mari Izagarekin batera "Oficios Tradicionales IV" liburua argitaratu du. 200 orri dituen liburuan denborarekin galdu diren ofizioak eman nahi dituzte ezagutzera. Industriarekin, meagintzarekin, itsasoarekin eta trenekin zerikusia zeukaten lanbideak, eta kaleko zein nekazal girokoak bildu dituzte. Liburuan hainbat langileren hitzak jaso dituzte eta beraz irakurtzen duenak ikusiko du langile hauek izan zirela gaur egungo ofizioen oinarriak. Dena den, ez da lanbide hauen azterketa sakona, garai batean izan zirenaren testigantza baizik. Hiru idazleonen hurrengo erronka, orain arte idatzitako lau liburuak euskarazko liburu bakarrean biltzea izango da.

Maiatzaren 14ra arte izango dira ikusgai Joseba Esnaolaren lanak Kultur Etxean

Joseba Esnaola (Jose Quintana) margolari elgoibartarraren lanak ikusgai izango dira Kultur Etxean datorren maiatzaren 14ra arte. Erakusketako lanetan estilo figuratiboa landu du, baina abstrakzioa eta errealismoa ere jon'atzen ditu. Donostiako 'Katalina de Erauso' Arte Eskolan eta Elgoibarko 'Egur' taldean aritu ostean bere kontura egiten ditu margo lanak. Hau da bere lanekin osatuta egin duen lehen erakusketa. Margolari elgoibartar honen lanak ikusi nahi dituenak astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara izango du aukera.



45 gazte Goizuetan izan ziren GAZ-Treldn

Elgoibar eta Mendaroko 45 gaztetxo Goizuetan izan ziren apirilaren 26tik 29ra bitartean. Bertan GAZ-T taldeko 8 begiralerekin batera tailerrak egin dituzte, hainbat gai eztabaidatu, Goizueta herria bera ezagutu eta diskotekan dantla egiteko aukera ere izan dute. GAZ-Tkoen esanetan, "eguraldia ez da oso ona izan, baina ambiente ona izan dugu. Hori dela-eta, GAZ-T taldekook gazteak zoriondu nahi ditugu". Bestalde, Atxutxiamaika eta GAZ-Tko begiraleek 'Txuri Urdin'era (Donostiara) joan ziren L.H.1, L.H.2 eta L.H.3ko ikasleak txalotu nahi dituzte "egun zoragania igaro arazi zigutelako", diote taldekideek.

Bost arkume jaio dira Upai baserrian

San Lorenzo auzoko Upai baserrian ardi batek bost arkume izan zituen joan den asteazkenean, hilaren 2an. Ez da ohizkoa ardi batek haurdunaldi baten ostean hainbeste arkume izatea eta baserritarrak asko harritu ziren gertatutakoa ikusita.

Lehendabizi hiru jaio ziren, ondoren laugarren bat eta ordu batzuk beranduago bost zirela jakin zuten. Tamalez arkutneetako bat oso ahul jaio zen eta egunean bertan hil zen.

Arkumeen amak bi txiki elikatzen ditu eta beste biei Upai baserriko Pedro Izagink ematen die esnea biberoiarekin.



biaki Jaiok gose greba utzi du

Huescako espetxean preso dagoen Iñaki Jaiok 10 egun gose greban egin ostean, baraualdia utzi zuen maiatzaren

2an. Iñaki Jaiori elkartasuna adierazteko joan den ostiralean, apirilaren 28an, kontzentrazioa egin zen Plaza

Handian 'Euskal Presoak Euskal Herrira' plataformak deituta. 40 lagun inguruk Presoen egoera salatu zuten eta baita beraien etxeratzea eskatu ere.

• Jubllatuen Etxeko ileapaindegia

Udaleko Gizarte Ongizate Sailak aditzera eman nahi du Jubilatuen Etxeko ileapaindegiaren ardura hartzeko enkantea egingo dela, eta horretarako deialdia zabalik dagoela. Kontratua urtebetekoa izango da, baina luzatzeko aukera egon daiteke. Proposamenak aurkezteko azken eguna maiatzaren 12a izango da.

• 'Arigerak euskaraidw tertulak antolatu ditu

'Arigera' proiektuaren egitasmo hau, batez ere, euskararikasleei eta eguneroko bizitzan euskaraz hitz egiteko aukerarik ez dutenei zuzenduta dago. Talde txikiak osatuko dira euskara maiIa eta ordutegiaren arabera. Taldeak hamabostean behin ordu betez elkartuko dira. Tertulia hauetan parte hartu edo informazio gehiago nahi duenak, eman dezala izena bi euskaltegiatiko batean edo Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen (Tel. 943 74 16 26 Amaia).

• Udalak *fixe-Tar* enpresari aparkalekuak egiteko baimena eman dio

67 autorentzako aparkalekuak egin ditu Etxe-Tar enpresak Karkizaoko lurretan. Udalak horretarako baimena eman badio ere, garbi utzi nahi izan du Karkizao urbanizatzeko planak aurrera eginez gero, ez dutela inolako indemnitaziorik jasoko. Karkizao-ko plan partziala onartuta dago eta 2001. urteko udarako amaituta egon behar-ko litzateke berez. Hori dela eta, eguna iristean ikusi behar-ko da Udalak Etxe-Tar enpresako aparkalekuela zer egiten duen.

Euroaren kanpaina ekainaren 11tik hasiko da Elgoibarren

Herritarrek moneta berrira ohitzea da kanpainaren helburua

Fkainaren amaierara arte itxoin behar-ko dugu elgoibartarrok herriko dendetan erosketak euroekin egiteko. Hasieran 2000. urte hasieran egitea zen asmoa, baina aldaketa konplexua denez, atzeratzea erabaki dute. Lehendabizi heziketa epea egingo da hitzaldi eta praktika bidez; eta ondoren, ekainaren 23tik uztailearen 2ra bitartean erosketak euroekin ordaindu ahal izango ditu nahi duenak. Kanpaina honekin herritarrei jakinarazi

Erosketak euroekin ordaindu ahal izango dira herriko dendetan ekainaren 23tik uztailearen 2ra arte.

nahi zaie moneta berria laster iritsiko dela gure eskuetara eta al-daketa lehenbailehen onartu behar dugula. Kanpaina indarrean dagoen bitartean herrian musika eta maskota izango dira kalean. Bestalde, irratsoia, lehiaketak, inkesta... egingo dira. Izan ere, kontuan hartu behar da Gipuzkoan Elgoibarren baino ez dela egingo kanpaina hau. Informazio gehiago nahi izanez gero, Kanpaina honetarako Kultur Etxean jarri duten bulegora jo dezakezue.



LASALLE AZITAIN IKASTETXEAK
 2000 - 2001 IKASTURTERAKO
 HONAKO BATXILERGOAK
 ESKAINTZEN DIZKIZU:

GIZARTE ZIENTZIAK
OSASUN ZIENTZIAK
ZIENTIFIKO-TEKNIKO (A eta D)

Etengabeko jarduna

DEITU 943 202505 - 943 121698 telefonoetara
Maitzaren 2tik 12 ra

BADUGU IKASTEKO LEKU BAT ZURETZATI

Baserritarren errenta aitortpena

Urtero errenta aitortpena egin behar buruhauste ugari ekarri ohi dizkigu. Baserritarrak langile diren aldetik ere errenta aitortpena egiten dute urte sasoi honetan. Orain arte Nekazaritza Ganberako Nievesek errazten zien baserritarrei lan hau, baina Nekazal Ganberako langileak Jaurlaritzara pasatu dira eta orain basen-itarrren errenta aitortpena egiteko ardua EHNEk eta Lurgintzak hartu dute. Beraiek herrietan hainbat langile jarri dituzte eta baserritarrek hauengana jo beharko dute deklarazioa egitera. Elgoibarko bulegoan Izaskun dago eta beraiekin hitz egin dugu gai honi buruzko argibideak jakiteko.

- Baserritar guztiek egin behar al dute errenta aitortpena?

Aktibitate bat daukaten momentutik derrigortuta daude errenta aitortpena egitera. Langileek kopuru batetik behera irabaziz gero ez dute deklarazioa egin behar eta horrek jendea nahasi egin du. Ganaduak edo ba-

ratza handiak dituzten baserritar guztiek egin behar dute. Izan ere, baserrira enpresa txiki bat bezalakoa da. Ane-xoa betetzera denek etorri behar dute, hau da, zenbat ganadu eta zenbat hektarea dituzten esatera behintzat etorri behar dira, horrela baserriko errendimendualc jakin ahal izaten ditugu. Ondoren baserritarrak berak erabakiko du errenta aitortpena hemen egin edo beste lekuren batera joan.

Ekainaren 26ra arte egin ahal izango da errenta aitortpena, astearte eta asteazkenetan Nekazal Ganberako bulegoan, aurrez ordua hartuta.

- Zein aldaketa izan dira aurten?

- Nekazal Ganberako langileak Diputaziora pasatu dira eta Diputaziotik esan dute beraiek ez dutela errenta aitortpenik egingo. Izan ere, Nekazari-

tza eta Hazienda sailen artean ez dute konfliktorik sortzerik nahi. Hori dela eta, EHNE sindikatuak eta Lurgintzak hainbat pertsona jarri ditu baserritarrei errenta aitortpena egiteko. Bestalde, baserritarrek patrimonioaren informazioa eman behar zuten, baina aurten datu horiek ez eman eta atzeratzeko eskaria egin dute EHNEk eta Lurgintzak. Orain diputazioko erantzunaren zai gaude.

- Gainontzeko gauzak orain arte bezalaxe egingo dira, ezta?

- Bai, hala da, mekanismoa eta tokia berdina izango dira. Aldatu-ko den bakarra pertsona izango da. Lehen Nievesek egiten zuen lan hau eta orain nik egingo diet errenta aitortpena baserritarrei. Astearte eta asteazkenetan egongo naiz Nekazal Ganberako bulegoan ekainaren 26ra arte, baina baserritarrek aurrez ordua hartu beharko dute 943 74 22 23 telefonora deituta. Dena den, baserri guztietara eskutitzak bidali ditugu honen berri emanez, beraz, basenitlarek ez dut uste dudarik daukatenik.

- Zein agiri ekarri behar dituzte baserritarrek?

- NANA, pentsioko orriak, familia liburua, erretentzio orriak, banketxe edo aurrezki kutxetako estraktoak eta ganadu eta hektarea kopuruak. Horiek agiri orokorrak izango lirateke eta kasu zehatzetan beraiei eskatzen dizkiegu beste agiriak.

- Zailtasunik izaten al da baserritarren errenta aitortpena egiteko orduan?

- Batzuetan agiriren bat-edo ahazten zaie baina generalean ez dute zalantza eta zailtasunik izaten. Datuak falta bada Nekazal Ganberatik lortzen ditugu, eta bulegoak aldamenean daudenez, berehala egiten dugu.



Baserritarren jaia

San Isidro

San Isidro Eguna, baserritarren jai handia. Maiatzaren 15ean bailarako baserritarrek beraien santuaren omenezkojaia egingo dute Arraten. Baserritanek aukera gutxi izan ohi dute baserriko lanak alboratu eta eguna umore eta jai giroan pasatzeko. San Isidro Eguna da horietako bat, eta egun honek balio berezia izan ohi du baserritarrentzat. Lagunekin elkartzeko eta kantuan eta dantzan aritzeko eguna izango da maiatzaren 15a. Egun horretan Arrate ingurura hurreratzen den edozeinek giro alaiaz gozatzeko aukera izango du.

1980 urte inguruan Eibar, Elgoibar eta Soraluzekeo baserritarrak, San Isidro Egunean Arraten elkartzen hasi ziren eta hogeitau urte pasa ondoren berdin egiten jarraitzen dute. 1992an DEBEMEN elkarteak hartu zuen jai egun hau antolatzeko ardura eta aurreko herrietako baserritaniari Mendarokoak, Debakoak eta Mutrikukoak gehitu zitzaizkien. Gaur egun, beraz, Debabarreneko baserritarren bilgunea izaten da San Isidro Eguna Arraten.

San Isidro Eguna Elgoibarren

Arrate inguruak dira orain jairako aukeratuak, baina garai batean Elgoibarren ere egiten zen San Isidro Egunekeo ospakizuna. San Isidoren irudia San Lorentzotik Parrokiara prozesioan ekarri ostean, meza egiten zen bertan. Ondoren, baserriko gaien inguruko diapositiba emanaldia izaten zen eta bukaeran zezenketen irudiak ikusten zituzten.

Gaur egun bezalaxe orduan ere bertsolariek ez zuten huts egiten San Isidro Egunean. Orain bailarako bertsolariak aritzen dira, hala nola, 'Lizarreta', 'Narbaiza', 'Egileor' eta 'Ziarda'. Garai hartan, ordea, 'Basarri' eta 'Uztapide' aritzen ziren kantuan.

Bazkaria egiten zuten gero gizonezkoek. Orain denak elkar-tzen dira 'Kantabria' jatetxean eta menua zertxobait aldatu arren giroak ederra izaten jarraitzen du. Orain bazkal ostean sei herrietako aiton-amona nagusienei opariak eman ohi zaizkie.

Lehen bertsolariek eta 'Gelatxo'k alaitzen zuten bazkal ostean; orain trikitilari gazteek hartu diete erreleboa eta 'Baltzola anaiek' jarriko dituzte trikiti doinuak Arraten.

Garaiak aldatuz doaz, baina San Isidro Egunak bere horretan dirau eta enomeriaren ondoren idi-probarik ere ez da faltako. Eguna giro ederrean pasatu nahi duzuenok, beraz, badakizue. Egun bat izaten da urtean, ahaztu baserriko lanak eta hartu jai, ongi pasatuko duzue eta. Gogoratu gainera, San Migelerako bi-degurutzetik autobusa aterako dela goizeko 10:15ean. Bestalde bazkari-txartelak salgai daukazue DEBEMEN elkartearen 4.600 pezetaren truke.

egitaraua

MAIATZAK 14 (Igandea)

Urrezko Aizkoraren finalerdia.
Larretma eta Olasagasti.

MAIATZAK 15 (astelehena)

Meza eta ondoren prozesioa.
Mezan Lizarreta, Narbaiza, egileor eta Ziarda bertsolariak eta Baltzola anaia trikitilariak arituko dira.

Getariko txakolinaren eta bailarako gaztaren dastaketa.

Zelai eta Goenetxe harri-jasotzaileen arteko desafioa.

Anaiarteko bazkaria Kantabria jatetxean. Bazkal ostean, sei herrietako aiton-amona nagusienei opariak banatuko zaizkie eta mahaikideen artean sari bat zozketatuko da.



Jarraian Lizarreta, Narbaiza, Egileor eta Ziarda bertsolariak eta Baltzola anaia trikitilariak.

Kintopeko idi-demak.
Partaideak: Alzubarren (Eibar), Lopategi (Mungia) eta Lapiola Oikia

Jarrai Sari banaketa

J. saria 135.000 pta. eta DEBEMEN elkartearen garaikurra.

120.000 pta. eta INEKOn garaikurra.

110.000 pta. eta ARRIZABAL enpresaren garaikurra.

Lehenengo 15 iltzeak azkarren egiten dituenarentzat UNZUE pentsuen saria izango da.

Txanpain botila kaxa eta ardo botila kaxa zozketatuko dira.

KASKANTE BEHEKOA baserria

Kaskante baserrira iritsi eta atarian marmitak ikusi ditugu, garai batean esnearekin jaisten ziren kalera, baina aspaldian okelatarako baino ez daukate behiak. Kaskanteko sukaldean izan gara berbetan Maria Angelesek. Beheko solairuan bere aita eta anaia bizi dira, goian, berriz, Maria Angeles bera senarrarekin eta seme-alabekin. "Ezkondu nintzian hemen geratu nitzan, ganbaran bizitzen, baina baserrixa anaixana eta aitxana da". 100 urte baino gehiago izango dira Kaskanten bizi direnetik. "Amanzan ama edo amanza hemen bizi zan. Aberatsen batena zan Kaskante baserrixa, gure fanzilixakuak lehenengo errentan egon zian eta gero erosi zaben". Orain Kaskante goikoa garoa eta barrondoa sartzeko erabiltzen dute.

Behi esnerik ez

Urte luzetan bizimodua baserritik atera izan dute, baina garaia aurrera joan ahala gauzak aldatu egin direnez, kalerako bidea hartu dute Kaskanteko bizilagunek. "Lehen aitzak eta amak baserrixa eitzen zaben lan, baina oin aitxa erretirata dao eta anaia kalia ibiltzen da". Esnetarako behiek lan handia eskatzen zuten eta utzi egin zioten lan horri. "Lehen nik eruaten naban esnia kalera eta Gurelesa'ra, eta oin ere baserriko lanetan nik laguntzen dot". Orain lana arinagoa da, baina baserrikoa etengabeko lana dela gauza jakina da. "Oin hasi eta bedarrak bedarzulora erretirau, gero sikau... Gero neguan lan gitxiu dao, baina garbiketak dala, simaurra bota bihar dala... beti egoten da lana". Orain nahi izanez gero goizean beranduago jaikitzen dira. Izan ere, lehen behiak jaitzi eta esnea kalera eraman behar zenez, erlojuaren menpe bizi ziren.

Behiez gain 18 ardi eta aharia ere badauzkate. "Mendixak garbitzeko ibiltzen ditxugu eta gero euren okelia saltzen dou. Bestela, etxerako". Ortuarekin ere gauza bera egiten dute, bertatik ateratakoa etxerako izaten da eta soberan izanez gero kalean saltzen dituzte barazkiak.

Kalera oinez jaisten zirenekoak

Baserriko zein kaleko lanek lotzen dituzte kaskantekoak eta oporretarako asti gutxi izaten dute. Hala ere, eguneroko



Behiak zaintzeko makina

Behiak larrera atera, hesia itxi eta makinak kontrolatzen omen du ganadua. "Kalanbria ematen daban makina bat da. Behixeri ez dakit ematen diuen, baina neri bai", esan digu Maria Angelesek. Behin belarra jandakoan, libre uzten dituzte. "Oin poliki-poliki jaten juten dia, eta gero guk bedarra bedarzulora erretiratzen dou behixek jateko". Aurrerapenak baserrietara iritsi dira eta Kaskante ere ez da atzera gelditu.

egiten dute kalera bueltatxo. "Errekauak ein, umiak eruan... goizian beti kalia ibiltzen gera. Arratsaldia, berriz, bedarra batzen edo baserriko beste lanak eitzen pasatzen dot nik". Garai batean kalera oinez edo asto gainean jaisten ziren; orain, berriz, autoan. "Ni amari laguntzera bajatzen nintzan astuakin; oin, berriz, zenbat buelta eitzen ditxugu kalera kotxiakin. Lehen eskolara oinez juten ginan, ze ez zauan ez kotxerik ezta kaminorik ere. Batzutan iluntan ere bilurrez etortzen ginan. Gure seme-alabak ez daude ohituta, baina batzutan bajatzen dia kalera oinez". Seme-alabek auzoan dituzte lagunak eta kalera noizean behin baino ez dira jaisten.

Autoa aurrerapen izugarria izan da, baita baserriko makinak ere. Maria Angelesek gogoan du idiekin lan egiten zen garaia. "Oin traktorakin segiduan eitzen dia lanak. Lehen itsulana ere eitzen naban nik idiekin. Oin alaba astuakin ibiltzen da, baina batzutan korrika eitzen dabanez ez dot nahi izaten bera hola ibiltzerik. Lehen 11 urtekin daretik eitzen genduan, baina oin ez diuet

umiei lagatzen". Orain egiten dituzte baserrian lan batzuk, baina gerora Maria Angelesek ez daki baserrian jarraituko ote duten.

KASHANTE BEHEKOA

Auzoa: San Migel.

Bizilagunak: Luzio Bengoa,

75 urte; Pedro Bengoa, 42 urte;

Iñaki Ofiederra 43 urte;

M. Angeles Bengoa, 44 urte;

Maidor Oñederra, 11 urte;

Iker Oñederra, 8 urte.

Lur hedadura: 19 hektarea.

Esplotazioa: 7 behi, 2 bie, 3 txahal eta idiskoa. 30 oilo eta 4 untxi. Baratza.

MENDIRIN *menill*

MINTXETA-GOENAGA-SAN LORENTZO

Mintxetako zelaitik abiatu eta Erretrindiko etxeetatik joko dugu.



Distantha: 8,5 kilometro.

Denhora: 2 ordu eta 30 min.

■1 Ibilbidea Mintxetan hasi eta Erretrindiko etxeetarantz doan galipotezko bidea hartuta, San Rokerako errepidearekin elkartzen den bidegurutzeraino janaituko dugu. 10 minutuko bidea da gutxi gora-behera. Bertan ezkerretara jo eta San Rokeko ermitaraino segituko dugu. Beste 10 minutu ibilita izango gara han.

■2 Panparron, Gurutze eta Lapramendi baserrien paretik igarota bidegurutze bat aurkituko dugu. Ezkerretara hartu eta Agarre baserriaren paretik pasatuta, aldapan gora segiko dugu. Galipotezko bidea jarraituz, eskumara dagoen errebueltan ezkerreko baserrira joko dugu, Goenagara, alegia. San Rokeetik Goenagara arteko bidea 40 minutuan egin daiteke.

■3 Goenaga baserrian ezkerretara hartu eta markatutako bidetik joanda pinadi batean sartuko gara. tsieran bi ataka aurkituko ditugu eta hauek pasatuta Bolueta baserrira helduko gara.

■4 Minutu gutxira bidegurutze bat ikusiko dugu eta eskumako bidea hartuko dugu. Bidean aurrera egin eta Azaola baserrira iritsiko gara. Handik gora egin eta Aozar paretik ezker aldera Gorostizabal baserrira doan bidezidor bat dago.

■5 Asfaltatutako pista hartu eta Orraindi, Gelasoro eta Ermube baserrietan barrena pasatu eta iturri ondora, San Lorentzoko errepidera, helduko gara.

■6 Hortik San Lorentzoko ermitara 300 metro baino ez daude eta auzoaren izen bera duen errekarari janaituz, berriz ere ineera puntura itzuli ahal izango gara, Mintxetara, alegia. Ibilbide guztia egiteko 2 ordu eta erdi beharko dira gutxi gora-behera.



Goenaga baserriatik aurrera eginda pinadi batean sartuko gara.

Informazioa:

Ermua, Elgoibar Soralue eta Mendaro ingurutako ibilaldia.

Celso Romero Orenseko herritxo batean jaio zen orain dela 48 urte. Sei edo zazpi hilabete zituela gurasoek Elgoibarrera ekarri zuten. Gaur egun Galiza Etxeko presidentea da eta berarekin izan gara berbertan datorren asteburuan ospatuko dituzten 'Letras Galegas' jaien berri izateko. Hauei buruz eta Galiziarren ohiturei buruzko hainbat kontu esan dizkigut Celsok.

C S R mero

"Gaita, pulpo eta enpanadarik gabe ez dago galiziarren jairik"

Noiztik ospatzen dira 'Letras Galegas' Elgoibarran?

- Elkartea bera 1978an sortu genuen eta jaia ondorengoa da. Guretzat lan handia izaten da jai hauek antolatzeko, baina Galiziako kultura ezagutarazten saiatzen gara.

— Jaiez gain, hizkuntza, ohiturak eta folklorea gordetzen ere saiatzen al zarete?

Oro har kultura gordetzea da gure nahia eta asmoa. Hizkuntzari dagokionez bada galegoz hitz egiten duen jendea, nik, ordea, ulertu arren ez dut hitz egiten. Behin Luaoan izan nintzen konbentzio baten, eta bertan galegoz berba egiten zuen mutil argentinar bat zegoen. Bere birraitona galiziarra zen eta niri haserre egin zidan galiziarra izanik galegoz hitz egiten ez dalako.

Garai baten tuna ere izan zuen Galiza Etxeak.

'Tuna Andurifitt' izan

zen, baina orain dela urte batzuk utzi zioten. Dena den, bai lehen eta baita orain ere 'Letras Galegas' jaietarako gaita talde bat ekartzen dugu Galiziatik. Zarata piska bat atera nahi izaten dugu jendea gure jaira erakartzeko. Gaitarik, pulporik eta enpanadarik gabe ez dago galiziarren jairik.

Urtero idazle galiziarren bat omentzen duzue 'Letras Galegas' jaietan, ezta?

- Bai, idazle bat, poeta bat, eskulturgile bat... urtero galiziako kultura ren alde lan egin duen norbait omentzen dugu. Aurten Manuel Murgia idazlearen txanda da. 'Letras Galegas' jaiez gain, Euskal Heniko Galegoen Elkarteko kideok anaitasun jaia egin ohi dugu ekainean. Bertan, Galiziako kultura zabaltzeko ahalgina egin duten elkarteei edo komunikabideei oroigarri bana ematen zaie. ETBk igandetan Galiziako kulturari

buruz egiten duen programarengatik esaterako urrezko andurifia jaso du.

— Zer esango zenieke elgoibartarrei zuen jaietara joateko?

- Normalean herritar denak gonbidatzen ditugu. Gainera zenbat eta jende gehiago etorri, guretzat hobea. Baina arrazoiren bat ematekotan giro ona egoten dela esango nieke.

— Zein da zuen kultura gordetzeko sekretua?

- Behin Ardanzak galdetu zigun ea galiziarrok gauden lekuan gaudela, elkartzeko joera hori zergatik geneukan. Nire ustez hori gure izaeraren parte bat da. Gure artean gaizki konpondu arren, gure kultura defendatzeko nahi horrek batu egiten gaitu.

- Elgoibarko etorkinen artean galiziarren omen zarete nagusi.

Asko gara, baina ez dakit denera zenbat garen. Gainera, Galiziako kultura bultzatzeko elkartea den arren, bazkide guztiak ez gara galiziarrenak. Euskaldunak, Andaluziakoak... elkartzen gara hemen.

— Sarritan esan ohi da hona etorritako galiziarren jubilatu ondoren berriz itzultzen direla Galiziara.

- Hona Iehenengo etorri zirenak han hazitakoak dira eta horiek sanitan itzultzen dira. Bestalde, gurasoek ekarri eta hemen hazi garenotatik batzuk bueltatuko dira, baina ez denak. Nik, adibidez, oporetan Galizia baino nahiago dut hegoaldera joatea. Galizian hemen bezalaxe euria egiten du eta gastronomiarekin bakarrik gozatzeko hemen ere ondo jan daiteke. Beraz, ni behintzat, ez dut usate itzuliko naizenik. Hori norberaren araberakoa da.

EESTEK.ESANA

"Galiziako kulturaren alde lan handia egin du elkartean".

MANU A TRAY, Galiza Etxeko lehendakariordea.



- Bertat Garate Perez (Apirilak 1)
- Eneko Ansola Muller (Apirilak 4)
- e Ekhi Lopez Castrillejo (Apirilak 5)
- Maria Ruiz de Gauna Gonzalez (Apirilak 7)
- Aitor Iriondo Unarnunzaga (Apirilak 7)
- Julen Azkarreta Ulazia (Apirilak 8)
- Ibai Diez Hidalgo (Apirilak 9)
- Iban Orive Santos (Apirilak 10)
- Asier Urain Martin (Apirilak 11)
- Jokin Arroyo Fernandez (Apirilak 13)
- Mikel Morcillo Mendikute (Apirilak 14)
- Judith Iriondo Alvarez (Apirilak 15)
- Mikel Astigarraga Santos (Apirilak 16)
- Markel Aizpitarte Arrizabalaga (Apirilak 20)
- Mikel Elustondo Mancisidor (Apirilak 21)
- Oihane Lauzirika Calles (Apirilak 24)
- **Iñigo** Otaegi Iranzo (Apirilak 24)

• • EZKONDUTAKOAK • •


- Pedro Luis Carrillo Regidor eta Maria Salegi Aldabe (Apirilak 15)

• • • HILDAKOAK • • ID

- Maria Francisca Alberdi Alberdi, 88 urte (Apirilak 1)
- Dolores Larrea Eguia, 86 urte (Apirilak 1)
- Fernando Perez San Jose, 74 urte (Apirilak 3)
- M^o Concepcion Santolaya Lizundia, 69 urte (Apirilak 7)
- e Agustin Sagasta Isasmendi, 75 urte (Apirilak 21)


Constantino Bouns Lois

(1909-1987)



- 1909ko otsailaren 27an jaio zen, Figeroa herrian (Pontevedra), udaletxez Ceredokoa. 4 anai-arreba izan ziren, bera laugarrena. Gaztetako ikasketak herriko eskolan egin zituen.
- 13 urte inguru zituela, Santiago de Compostelako seminario batean apaiz ikasketak hasi zituen. 5 urte pasa ondoren seminarioa laga zuen. Gero, aparejadore lanean hasi zen eraikuntzan. Bere aita konstruktora handi bateko nagusia zen eta Constantinok leku askotan eta obra handietan hartu zuen parte batera, baita atzerrian ere.
- Soldaduzka Galizian egin zuen. 1936ko gerratean hainbat lekutan ibili zen, ezer txarrik gertatu gabe. Gipuzkoako herrietan ere ibili zen, errepideetan eta antzerako obretan lanean, bera zen nagusia. Ondoren, Eibarrera etorri zen Donostiako eraikuntza enpresa baten eskutik, hemen ere nagusi moduan. Azkenik Elgoibarrera iritsi zen eta hemen tinkatu zen betirako. "B.A.B.A" eraikuntza enpresa fundatu zuen eta urte luzez egin zuen lan benetan konpromiso zailetan. Famatu egin zen.
- Gaixoak jota lan i pasa zuen, haina onik atera zen. 1959ko unarrikuen 24an ezkondu zen Antonia Gabilondo elgoibartar pertxentarekin. Ez zuten familiarik izan, baina urrezko ezteiak ospatu zituzten. Ezkondu arte 'Restaurante Bamitia'n (Gaur egun Banco Santander dagoen lekuan) egon zen lanean. Constan izenez zen ezaguna herrian eta erabat elgoihartarra izatera iritsi zen.
- Genio hizia eta begirasun serioa zituen gizon honek obra askotan hartu zuen parte herrian bere enpresarekin, Langile asko enplegatu zituen eta baita mesede asko egin ere, bihotz onekoa baitzen. 'Biar-Dana'ko Galiziar Elkaneko eta 'C.D. Elgoibar'ko hazkidea zen. 'Harnaika-Gazte'ko partaidea ere bazen. Gizon borondatetsu eta sinesmenekoa zen.
- Familia, lagunartea, irakurtzea eta pasiarak ematea gogoko zituen, baita Gorostiza eta Luis tabernak ere. 1987ko otsailaren 11 n hil zen, 78 urterekin.

Juanito Gorostiza



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK KOROAK

**NORBANAKOEI eta KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.**

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01



ste honetako erretratu zaharra **Ana Mari Iruretak** laga digu. "Colegio de la Milagrosa de hijas de la caridad" ikastetxe aurrean atera zuten argazki hau 1943. urtean. Batarik txukunena jantzi, eta ikasturte hartan elkarrekin ibili ziren laguneroigarrri gisa atera zuten argazkia.

Hona hemen erretratuan agertzen diren nesken izen-abizenak: Goitik behera, ezkerretik hasita: **Lucia Arrieta, Yoli, Celia Juaristi, Julita Unzueta, Begolla Gorriti, Filo Agirre, Miren Agirregomezkorta** eta **Libe Gabilondo**.

Erdian, ezkerretik: **Lurdes Juaristi, Karmentxu Azkue (?), Ana Mari Irureta, Laura Egurrola, Mari Tere Bastida, ezezaguna, Belen Barrutia, Maritxu Urain, Pilar Arrieta, Marivi Agerri, Maria Luisa Mendikute** eta **Blanquita Agote (t)**.

Eserita: **Maitte Manterola, Isabel Murua, Juani Lizundia, Miren Artola, Maria Luisa Iribarren, Severi Aranguren, Pilar Cabud** eta ezezaguna.

Okerrak zuzenduz:

318. aleko enetratu zaharrean izandako oker bat zuzendu nahi genuke. Lerunen ateratako argazkian bi mutiko agertzen ziren azpiko ilaran eta beraien izenak trukatu genituen. Beraz, ezkerretik hasita bigarrena Valerio Iffiguez da eta Eskumatik hasita bigarrena, berriz, Joaquin Loiola (t). Barkatuk eragozpenak.

thiceta Elgothar taldeak Espainiako Eskubaloi Txapelketako sektorea irabazi du

Espainiako Txapelketako azken fasea Elgoibarren jokatu da hilaren 10etik 14ra bitartean

Unceta Elgoibar jubenil mailako nesken eskubaloi taldea Leonetik itzuli berri da. Bertan, Espainiako Eskubaloi Txapelketako sektorean hartu dute parte maiatzaren leku zubia aprobeztatuz. Bi partidu irabazi eta bat berdindu ostean, Espainiako Txapelketako azken fasea jokatzeke sailkatu dira. Maiatzaren 10etik 14ra bitartean jokatu da azken fasea Elgoibarren. Azken fasean Ermua, Leganes, Elda, Fuengirola eta Remudas (Kanariar taldeek hartuko dute parte Uncetarekin batera. Hiru ekipotako bi talde osatuko dira eta lehen biek finalerdiak jokatuko dituzte euren artean.

Lehen partidua, 'Rasoeiro', Galizian txapeldunen aurka jokatu zuten Leonen. Partidu 'zoragarria' egin ostean, 22



Unceta eskubaloi taldeak hilaren Thean jokatu du azken faseko lehen partidua kiroldegian, arratsaldeko 20:00etan.

eta 9 irabazi zuten. Bigarren partiduan 'Fabripan' talde andaluziarraren aurka neurtu zituzten indarrak eta 22 eta 18 irabazi zuten, nahiko partidu estua joka-

tu eta gero. Azken partidu erabakiorra Leongo 'Cleba' taldearen aurka jokatu zuten. Elgoibartarrek azken fasean izateko nahikoa zuten berdinketarekin. Denbora luzez markagailuan aurretik joan ondoren, emozioz beteriko amaiera izan zuen partiduak 18na berdindu baitzuten. Ales Anieta taldeko entrenatzaileak esan digunez, "primeran pasa genituen hiru egunak Leonen, eta trofeoak ematerakoan momentu hunkigarriak bizi izan genituen. Zerbait azpimarratzekotan, jokalariek guztien lan eta jarrera bikaina aipatuko nituzke, baita jokaterik izan ez zutenena ere, euren animoak ezinbestekoak izan baitziren. Bertan izan ziren 10 gurasoen animoak ere oso garrantzitsuak izan ziren".

• Gipuzkoako Pistako Atletismo Txapelketako finalak jokatu dira bihar, maiatzak 6, Bilkftetan


Gipuzkoa osotik etorritako neska-mutilak bilduko dira bihar, maiatzak 6, Mintxetako Atletismo pistan. Guztiek, infantil mailako Gipuzkoako Pista Txapelketako finaletan hartuko dute parte. Honako proba hauek jokatu dira besteak beste; 80 metro hesiak, pisu jaurtiketa, luzeera eta altuera jauziak, 1.000 metro oztupoak, 4x4 erreleboak etab. Lehen proba goizeko 10:30ean hasiko da eta azkena, berriz, eguerdiko 13:00etan. Bestalde, Mintxeta-Egondo Atletismo Taldeko 27 kortikalari hartu zuten parte Turretako XX. kale lasterketan. Ospe handiko lasterketa honetan probintzia ezberdinetatik joandako atleta gaztetxoek hartu zuten parte. Unai Cabo elgoibartarrak egindako lasterketa izan zen aipagarrienetakoa, lehen postua eskuratu baitzuen benjamin mailan. Aitor Arrillaga, beniz, bigarren iritsi zen helmugara alebin mailan.

• HAUNDI partidu erabakigarria jokatu du bihar Amorebiletaren aurka

Bihar maiatzak 6, Mintx.etan 3. mailan mantentzeko borrokan ari den HAUNDI futbol taldeak Amorebieta taldearen aurka jokatu du. Partidua salbazioa lortzeko azkenengo aukeretako bat izango da elgoibartarffentzat. Partidu honek garrantzi berezia daukanez, 'Club Deportivo Elgoibar'ek, "Jo Ta Sua" peñarekin eta "Etxeberria" peñarekin batera partidura azakzeko deia luzatu nahi die zaletuei eta oro har herritar guztiei. Animoak eta giroa berotzeko 'Mausitxa' txarangarekin kalejira bat antolatuko dute partidu egunerako. Arratsaldeko 16:15ean irtengo dira Mausitxakoak Madalatik Mintxetarantz. Partidua, berriz, 17:00etan hasiko da.

Zurble Polok urrezim domina lortu du Espainiako Judo Txapelketako Iparraldeko sektorean

Ibai Kirol Elkarteko judoka elgoibartar hau txapeldun geratu da Espainiako Txapelketako Iparraldeko sektorean, infantil mailako 44kg.tik beherako kategorian hain zuzen ere. Gasteizko Arriaga kiroldegian jokatu zen txapelketa. Bertan, Nafarroako, Errioxako, Aragoiko eta Euskadiko txapeldunak izan ziren. Zuriñek, emaitza honekin, iazkoa hobetzea lortu du, iaz hirugarren sailkatu baitzen. Txapela lortu ahal izateko, lehenengo Nafarroako txapeldunari irabazi behar izan zion, ondoren Euskadiko selekzioko beste kide bati eta azkenik Aragoiko txapeldunari. Emaitza honekin Espainiako Txapelketako finaletarako sailkatu da. Finalak Alcalá de Henaresen (Madril) jokatu dira maiatzaren 13an eta 14an.



Egoitz Meggek hilt nizezke **domina eskuratu du Yugoslavian** julatau den Eturepake Sambe **Txapelketan**

20 herrialdetako sanbolariek hartu zuten parte

Egoitz Mora eigoibartarrak Europako sambo txapelketan hartu berri du parte. Yugoslaviako Novi Sad hirian jokatu zen txapelketa, Belgradetik 80 kilometrora. Bertan, 20 herrialdetako sambolariek hartu zuten parte: Armenia, Yugoslavia, Ukraina, Bulgaria, Rusia, Rumania, Eslovenia, Dinamarca eta beste hainbat herrialdetakoak. Egoitzek Euskadiko selekzioa ordezkatu zuen beste 11 herrikiderekin batera, samboa baita Euskadiko selekzioak nazioartean selekzio gisa parte har dezakeen kirol bakarretakoa, surfarekin batera. Samboan judoan bezain ondo moldatzen ez den arren, maila bikaina erakutsi zuen Egoitzek. Ukraina, Yugoslavia, Moldavia eta Bielorrusiako ordezkari



Euskadiko selekzioa ordezkatu zuen Egoitzek (eskumatik lehena). Europako txapelduna errusiar bat izan zen.

riei gailendu asteen, zilarrezko domina irabazi zuen. Bulgariako txapeldunaren aurka galdu zuen finalerdietako konbatea.

Mintxetako gimnasioa nue zine **kardiobaskularren aretea !reki beral du Kirol Patronatuak**

Guztira 650m² ditu hiru gunetan banatuta

Elgoibarko Kirol Patronatuak Mintxetako gimnasioan berrikuntzak egin ditu. Makina kardiobaskularrak dauzkan 100 metro karratuko gela berri bat ireki du eta honela guztira 650 metro karratu dituen gimnasioa osatu du. Beraz, Mintxetako gimnasioa honako hiru gela hauek osatzen dute une honetan: Lehenengo gela 120 m² dituen balio anitzeko gela da. Bertan, aerobika, step-a eta mantenimendu gimnasia egiteko aukera izango da. Gela honek ispiluak eta musika ekipoa dauzka. BigarTen gelak 430 m² ditu, eta polea eta pisu askeen makina eta aparatuak daude bertan, titness-a egin eta muskuluak garatzeko. Gela honek musika ekipoa ere badauka. Azkenik, lehen aipatutako hirugarren gelak, aparatu kardiobaskularrez gain, bideo pantaila bat ere izango du.

Gimnasioko erabiltzaileek entrenamendu egitarauak prestatu eta gainbegiratu



Makina Kardiobaskularrak dauzkan gela berriak 100 m² ditu eta bideo pantaila bat ere izango du.

tuen monitorea bat beraien zerbitzura izateaz gain, fitness, aerobick eta step-ak tartekatzen dituen taldeetan parte har dezakete asteen hiru aldiz. Gimnasioko arduradunek aipatu digutenez, "eskaintza honen kalitateari eta prezioari esker (2.000 pta/hileko bazkideek, eta 2.900 pta/hileko bazkide ez direnek) oso harrera ona dauka herritarren artean. Martxoan esaterako, 240 erabiltzaile izan ziren".

IVI" A.,1-7-Z A K

Futbola

Kultural Durango 1 - Haundi 1 (3. maila)
Elgoibar 2- Alaves 1 (Ohe. jub.)

Eskubaloia

Gaur Egt. 16 - Arrate 16 (Kad. mut.)
Arrate 12 - Pagoaga Elg. 20 (Kad. nesk)

idarraga Kafeak 3. saria

HAUNDIko jokalaria erregularrena 99/00

JOKALARIA PUNTUAK

1- Aranbern	33
2- Loren	29
3- Zulaika	28
4- Castro	27
5- Castillo	26
6- Ibarluzea	26
7- Alberdi	23
8- Polo	21
9- Baque	20
10- I. Leonardo	17
11- Bravo	16
12- Diaz	15
13- Caro	13
14- Miket	12
15- Ruiz	8
16- Guarrotxena	6
17- Manolo Ramos ,	4
18- Alkorta	4
19-Txasio	4
211- Edu	8
21- Fernandez	2

A G' ENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbala, 6
17:00 Amorebieta - **Haundi** (3. maila)
18:45 Pedrusko - Soralue (1. erreg.)

Eskubaloia, Kiroldegian


Espainiako Eskubaloi Txapelketa
Asteazkena, 10
18:00 Ro'Casa Remudas - C.B. Ermua
20:00 Unceta - Elg. B.M. Alsa Elda Prestigio
Osteguna, 11
18:00 Fuengirola - Ro'Casa Remudas
20:00 Juventud Leganes - Unceta -Elg.
Ostirala, 12
18:00 B.M Alsa Elda - Juventud Leganes
20:00 C.B. Ermua - Fuengirola

Dantza taldeak, 19J-21 eta streeptease-a ulehenengo Makrefestan" hihary maialzak G, Ikastolake Frontoian

12 ordu iraungo duen festan bildutako cirua C.D. Egoibar Futbol Elkartearentzat izango da

Bazkide 2000 egitarauaren eskutik iritsiko da "Lehenengo makro festa" Elgoibarrera. Zapatuan, hilaren 6an, arratsaldeko 16:00etan hasita era guztietako emanaldiak izango dira ikusgai Ikastolako Frontoian. C.D. Elgoibar taldearentzat dirua ateratzeko antolatu dute jai erraldoi hau.

UGA Dantza-Musika Taldearen saioa izango da ikuskizun nagusia, baina beste hainbat ekintza izango dira: Asier Matraka eta Ingalaterrako "Pol London" Disc-Jockeyek jarritako musika, ETBko KTM saioan eta "NON-STOP" dantzalekuan lan egiten duen Julius DJ ezaguna, sex-gogoak, mutil eta neskenzako streepteasea, etab. Joseina Etxeberria Euskadi Gazteko kazetariak ere izango du bere tarte, euskal musika jarriko baitu. Makro festako hizlaria Xabier Aldanondo izango da, ETBko KTM saioko aurkezlea. Ikuskizun hauetaz gain, sari mordoa irahazteko aukera izango da, bi pertsonentzako Parisera bidaia, mendi bizikleta bat, Scooter motor bat eta mi-



nikate bat zozketatuko baitituzte, besteak beste. Makro festaren antolatzaileek esan digutenez, aurrerantzean urtero antolatzea gustatuko litzaieke eta antolakuntzan lagundu dieten guztiak eskertu nahi dituzte, "Esken'ak eman nahi dizkiegu makro festa hau aurrera ateratzen lagundu diguten guztiei. Elgoibarko Udalak eta Euskadi Gaztea irriatiak adibidez, asko lagundu digute". Sarre-rak Tiro-Riro eta Lanbroan eskuratu daitezke aurrez (700 pta.) edo leihatilan bestela (1.200 pta.).

"Nirrikir umeentzako antzeziana eskainiko du KIII[2111]xo txotongilo taldeak Herhike Antzokian

Ahozko literatura eta jatorrizko ipuingintzan oinarritutako antzeziana da

Kukubiltxo txotxongillo taldeak, estreinatu berri duen "Txirrikiz" antzez-lana eskainiko du datorren maiatzaren 14an Herriko Antzokian. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren harruan kokatzen da emankizun hau. Saioa arratsaldeko 16:30ean hasiko da.

Ikuskizun honekin 1996an hartutako hildoari jarraitzen diotela adierazi dute Kukubiltxokoek, "Euskal Herriko ahozko literatura eta jatorrizko



ipuingintza kaleratzea, zabaltea eta berpiztea da gure asmoa, ahotsean eta irudian oinarritutako antzerkiaren bidez". Errose Bustintza, "Mañariko" euskal ipuin kontalari eta idazlea, hartu dute oinarri bezala oraingoan. "Txirrikiz", Errosek bildutako eta asmatutako ipuin desberdinen antzerkirako bertsioa da. "En'eatatea eta fantasia erabiliz, arrazakeriaren bazterketa eta berdintasunaren alde jotzen da lan honetan".

O
TXE
TAI3EKNA

Pectro Muguruza 8, behea
Tel. 943 7419 48

maio

cipa uci

24000
EUSKAL KABARE

felLso Rodenn | E49

KARAKATE
Solomoa, piper gorri
KALAMUA
Urdaiazpikoa, piper
MORKAIKO
Hiru giharra, gazta,
ATXOLIN
Txalka, letxuga eta
TOLETXE
Perretxikoa, gazta eta
Urdaiazpikoa TOR

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR. ELKAKTEA



110111RIMA AIIONAPIKOA

Hegazkinen hegaldia eta gai espazialak lantzen dituen in-finerutza da, Hegazkinen eta ibilgailu espazialen inguruko arloak lantzen ditu. Aeronautikatik abiatuta beste hainbat alorretara irits daiteke, automoziora esaterako. Arlo hau da gure gonbidatuak landu nahiko lukeena. Beti ere, "dinamikaren aldetik begiratu-ta".

/imaituzale

Nola pentsatu zenuen Injinerutza Aeronautikoa ikastea?

Txikitatik asko gustatzen zitzaidan. Atsegin ditudan gaiekin harreman estua daukan karrera da, aerodinamikarekin adibidez. Borkazioz eta kuriositatez izan dela esan nezake.

Nolako ikasgaiak daukazue?

Gai guztiak matematikan, kimikan eta tisikan oinarrituta daude. Lehenengo mailan nago eta bigarren lauhilabete honetan, adibidez, "aeronaves" deitutako ikasgai bat daukat, eta bertan hegazkinen munduan sartzeaz gain fisika eta aerodinamika bezalako gaiak ikasten ditugu. Gero bada bigarren mailako ikasgai bat ere, ekonomia.

Instititutik unibertsitatera gauzak asko aldatzen al dira?


Institutuan teoria askoz gutxiago ematen ziguten eta ariketa gehiago egitera ohituta geunden. Unibertsitatean, aldiz, teoria sakonago ematen digute eta gero guk aplikatu behar izaten dugu teoria hori. Horregatik jende askok akademietara jotzen du eta hauetan, teoriarekin nahastu beharrean, azterketak aprobatzeko egin behar dena erakusten dute.

Madrilen ari zara ikasten.

Injinerutza Aeronautikoa Espainian Madrilen bakarrik ikas daiteke. Sevillan jarriko dutela diote, bertan baitago hegazkinak egiten dituen enpresa garrantzitsu bat, baina momentuz Madrilgoa bakarrik dago. Gainera, interneten ikusi dudak sailkapen baten arabera munduko hirugarren unibertsitaterik onena da arlo honetan.

Karrera zaila al da?

Ia ezinezkoa dirudi, baina norberaren jarreraren arabera ere bada. Oso zaila da eta bost urteko karrera bada ere, jendeak zazpi edo zortzi urtean amaitzen du. Hala ere, ka-



rrera bukatzen dutenen % 100 lanean hasten da ziur eta lanpostu onetan gainera.

Zein irteera ditu lan munduari begira karrera honen?

Gero eta alor gehiagotan erabiltzea da aeronautikaren alderdi onenatariko bat. Hegazkinen munduari lotutako karrera dela dirudien arren, matematika, fisika eta esturturen ezagutza handia lortzen denez beste hainbat gauzari aplikatu dakioko. Automozioan, esaterako, aerodinamikak gero eta indar handiago du eta aeronautikoez zeresan handia dute gai horretan.

Non ikusi nahi zenuke zure burua lanean karrera amaitutakoan?

Izugarri gustatuko litzaidake Ferrariko injinerua izatea, baina hori ilusioa besterik ez da. Karrera amaitutakoan hegaZkinak egitera bidaltzen banaute ere pozik egongo, naiz. Hegazkinen mundua ez nuen ezagutzen eta abioi batean ez nintzen aurtengo Aste Santura arte ibili, baina piskanaka gauza asko ikasten ari naiz eta mundu hau gero eta gehiago gustatzen zait.

Zein ezaugarri behar ditu injineru aeronautiko batek?

Injineru guztiek bezalaxe aeronautikoez ere inizatiba behar dute. Aeronautika eta telekomunikazioa alor oso garrantzitsuak izango dira XXI. mendean. Aeronautikoez alor askotan parte hartzeko aukera izango dute.

Zer esango zenioke karrera hau ikasi nahi duen gazte bati?

Karrera hau ikasteko nota altua eskatzen dute. Nota altuak ateratzera ohitzen den ikasleak dena ondo egiten du eta unibertsitatera heltzean gauzak asko aldatzen dira. Beraz, kontuan hartu behar da karrera zaila dela eta gauzak lasai hartu behar direla. Hasi baino lehen gustatzen zaizun ala ez ongi pentsatu eta ikastera ohitu behar da.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia 943 032610
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . 943740385
 D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
 Gurutze Gorria .. 943 743864
 Mendaroko Ospitalea.. 943 032800
 Odol Emadeak .. 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia .. 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua... 943 744366
 Udal Kirol Patronatua.. 943 744415
 Kultura Zerbitzua.. 943 742158
 Mendaroko Udala... 943 756100
 Ongizate zerbitzua... 943741008
 Lidaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa. 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ... 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa ... 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola . 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza.. 943 740296
 Zaharren Biltokia 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola ... 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Institutua
 Arreiturre .. 943 74 80 19
 Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN..... 943 74 41 12
 El lario Vasco ... 943 74 40 73
 El Correo Espatol.. 943 74 10 82
 Zazpiki irratia .. 943 74 34 74

7 igandea

9:00 ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Txankakua zubitik
 Antolatzailea:
 Elgoibarko L.T.

11:00 HIRUKURUTZETA EGUNA

12:00 SENDOTZA
 San Bartolome Parrokian

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

16:30 ZINEA EUSKARAZ
 "Pinotxo"
 Antolatzailea: Udaleko
 Euskara eta Kultura
 Batzordea

19:30-22:15 ZINEA
 "Yoyes"

8 astelehena

22:15 ZINEA
 "Yoyes"

ostirala

22:30 DANTZA IKUSKIZUNA

"Asire"
 Taldea: Damian Mufloz
 Dantza konpainia
 Herriko Antzokian
 Antolatzailea:
 Haritz Euskal Dantzari
 Taldea

larunbata

16:00 LEHENENGO MAKROFESTA

19:30-22:15 ZINEA
 "Yoyes"

24:00 EUSKAL
KABARETA
 Kantaria: Felisa Roderano
 "Arrabalera"
 Toletxe tabernan
 Antolatzailea:
 Elgoibarko Izarra K.E.

10 asteazkena

15:00
IKUSENTZUNEZKOA
 "Txanogorritxu
 Ertarnerikan"
 Kultur Etxean
 Antolatzailea:
 DEBABE Euskaltegia

11 osteguna

21:30 ZINE KLUBA
 "La fortuna de vivir"

12 ostirala

22:15 ZINEA
 "Las nonnas de la casa de
 la sidra"

11 NE A



Zuzendaria: Helena Taberna.
 Antzezleak: Ana Torrent, Ernesto
 Alterio, Florence Pernel.

Yoyes

Yoyes izan zen ETako kargu garrantzitsuak izan zituen lehen emakumea. Filmean, Mexikon exiliatuta egon ostean, Euskal Herri-
 ra itzuliko da, baina bere itzulera ez da erraza izango. Bizitzaz aldatzea nahi du, Mexikon bizi izan den denboran, kanera bat ikasi du. ONU lanean ibili da eta ama izan da. Bien bitartean bere jaioterrian indarkeriak gai nagusia izaten jarraitzen du. Yoyesek ahaztea eta bera ere ahaz dezaten saiatu da, baina alperrik da mito bat bihurtu baita.

• **Udal Musika Bandaren kontzertua**

Domekan, hilaren 7an, Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian. Saioa eguerdiko 12:30ean hasiko da eta Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean honako pieza hauek joko dituzte: The Liberty Bell (J.P.Sousa), Finlandia (J.Sibelius), Danzas Fantasticas (J. Turina), La Parranda (F. Alonso), Jurassi Park (J. Williams).

• **Zinea Euskaraz egitasmoa**

Udaleko Euskara eta Kultura Batzordeak Zinea Euskaraz bultzatzeko egitasmoarekin jarraituz, "Pinotxo" filma eskainiko dute maiatzaren 7an, domekan, arratsaldeko 16:30ean Herriko Antzokian. Gepeto zurgin zabarrak sortu ondoren, Pinotxok abentura ugari biziko ditu: panpinzale gaiztoak erabili nahi izango du, haurrak astotxo bihurtzen dituen ura aurkituko du, balearen sabelean sartuko da Gepetoren bila... Filme honek aktore enealak, panpinak eta ordenagailuz egindako marrazki bizidunak nahasten ditu.

• **"Txanogorritxu Ertamerikan" ikusentzunezkoa maiatzaren 10ean**

'DEBABE' Euskaltegiak Kutxa Fundazioaren laguntzaz "Txanogorritxu Ertamerikan" izeneko ikusentzunezkoa eskainiko du datorren maiatzaren 10ean Kultur Etxean. Bi euskaldunek egindako lau urtetako (1995-1999) bidaiaren irudirik ikusgarrienak biltzen ditu ikusentzunezkoak. Trimaran batean Ertamerika itsasoz zeharkatu zuten bi lagunek; Mexikotik Costa Ricara, Perlas artxipiela, Panamako Kanala, Grand Cayman artxipiela, Kuba, eta azkenik Estatu Batuetako kostaldea, Floridaraino. Hiri honetan untzia saldu eta Donostiara itzuli ziren. Arratsaldeko 15:00etart basiko da saioa eta euskaraz izango da.

• **"Dia Das Letras Galegas" jaiak zapatuan, hilak 6, hasiko dira**

Galiza Etxeak urtero antolatzen dituen "Dia Das Letras Galegas" jaiak, zapatuan, hilaren 6an hasiko dira. Eguerdiko 14:00etan anaiarteko bazkaria egingo dute. Ondoren, "Chaves" jaurtiketa izango da Galiza Plazan, herrikoen partaidetzarekin. Benetako ospakizunak ostiralean, hilaren 12an hasiko dira, ordea, Manuel Murguia idazlearen ornezez txatliguak botako baitira arratsaldeko 19:00etan. Ordu berean galiziar janaria dastatu ahal izango da. Gaueko 22:30ean "D'Camara" orkestarekin dantzaldia hasiko da, Herri Eskolan. Jaiak hilaren 13 eta 14an izango dute jarraipena, baina emango dizuegu horren benirungo alean.

• **Zazpild Irratiko 'Rock & Blues txokear saioak 'Led Zep' talde hritanlarrarekin izandako elkarrizketa eskainiko du hihar**

Led Zep taldeak Led Zeppelin talde mitikoaren abestiak jotzen ditu eta apirilaren 16an kontzertua eskaini zuen Elgoibarko Gaztetxean. Taldeak Euskal Herrian lau tokitan baino ez zituen kontzertuak eskaini eta aukera probetxatuz Elgoibarko saioaren ostean elkarrizketa egin zieten taldekideei Gaztetxean bertan. Elkarrizketa entzutea nahi duzuenok bihar, maiatzak 6, izango duzue aukera eguerdiko 13:30ean FM 107.6an.

• **Gurasoel zuzendutako hitzaldia Mendaron maiatzaren 11 n**

Mendaroko 'Arno' Guraso Elkartek gurasoel zuzendutako hitzaldia antolatu du. Iñaki Aporta psikologoak eskainiko du hitzaldia maiatzaren 11n, ostegunean, Mendaroko Kultur Etxean. Gaiari dago-kionez, honakoa izango da: "Nola irakatsi hurrei bizimoduaz gozaten es-tuasunik gabe?". Hitzaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
6	Etxeberria	Etxeberria (Errosado kalean)
7	Etxeberria	Etxeberria (Errosarto Kalean)
8	Escala	Escala
9	Bidasolo	Bidasolo
10	Etxeberria	Zabaleta (Santa Ana kalean)
11	Fernandez	Fernandez
12	Yudego	Yudego *(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
J. IGNACIO FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

7 igandea Zabateta

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: Jean Becker.
Antzezleak: Jacques Villeretret, Jacques Gamblin, Andre Dussollierekin.

La fortuna de vivir

30. hamarkadako baserri giroan gertatzen da istorio hau. Bi gazte naturzale eta independente naturak emandakoaz bizi dira, karakolak bilduz, an'antzan eginaz... Bi gazte hauek pasako dituzten une txarrak eta onak kontatuko dizkigu zuzendariak hunkiduraz eta argiz beteriko filme honetan. Publikoak pelikula onenari ematen dion saria irabazi zuen Sitges-ko zinemaldian 1999. urtean.

Lana

• ESKAINTZA •

- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. ler 630 33 54 48
 - Soziedade bat garbitzeko emakumea behar da. a943 74 10 03
 - Ilepainrzaile titulua duen neska euskalduna behar da astebukaeretan lan egiteko. a 943 74 18 64
 - Etxeko lanak egiteko eta haurra zaintzeko neska behar da Mendaron. tr 617 88 08 89
 - Administrari lanak egiteko pertsona bat behar da. Bidali Curriculumak Elgoibarko 206 posta kutxatilan.
 - Martxan dagoen garbitasun enpreszt salgai, negozioaz arduratu ezina dela-eta. Makinaria eta furgonetarekin. Hilabeteko irabazia ziurtatuta (450-500 mila pezeta). 629 40 47 82
 - Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Goizeko 9:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte. 27 943 12 02 20
 - Kamareroa behar da Malape tabemarako 943 74 19 43
- ### • ESKAERA •
- Etxeko lanak egiteko ernakumea eskaintzen da. Orduka lan egiteko. 943 74 07 07 (18:00etatik aurrera deitu)
 - Neska eskaintzen da haurntk zaintzeko. te 686 32 02 41
 - Neska eskatzen da tabernetan edo jatebteetan garbiketa lanak egiteko. Larunbat gauean eta igandetan guson osoz. tr 943 74 36 38.

Salerosketak

- Euskadi txirindulari lasterketako bizikleta salgai. Ceus Campagnolo Record modelo. 58 neurria. Oso ondt> zainduta eta prezio onean. tr 943 74 37 75 (Gauetz deitu)
- Yamaha RD-350 salgai. Oso ongi zaindua eta prezio onean. tr 943 74 11 87 (Gauetz deitu)
- Renault 11 salgai. SS-AC. Oso ondo zainduta, garantiarekin eta estrekin. a 943 74 11 87 (Gauetz deitu)
- Boxer eta artzai aleman txakurkumeak salgai. Pedigreearekin. tr 696 05 73 46
- Gurpildun aukia erosiko nuke. tr 943 74 19 33 (Gauetz deitu)
- Kanpin denda familiarra salgai. Altua da eta berri-berria. Toldoarekin. tr 943 74 05 37
- Ford Fiesta diesela SS-4270-AZ. tr 943 19 90 45/ 600 64 54 64
- Opel Kadett GSI 2.0i salgai. [SS-9046-AH](#). tr 943 74 21 99/943 74 40 69

Bestelakoak

- Lokal komertziala alokatzen da Elgoibarren. 250 m². Oso egokia almanen modura erabiltzeko. Prezio ekonomikoa..zr 639 46 96 11 (19:00 etatik-21:00etara).
- Neskaz edo mutilez osatutako pisu konpartitu batean logela bila nabil. tr 943 74 31 75 (Gauetz deitu)
- Katezko pultsera bat galdu nuen apirilaren 1 6an. Norbaitek zerbait balekt deitu 943 74 35 07 telefonora.
- Urrezko pultsera bat galdu nuen Urasandiko parkean. Alejandra izena dauka idatzita. Aurkitu duenak eraman dezala Udaltzaingora edo bestela deitu 943 74 35 92 telefonora,
- Apirilaren 5ean urrezko lepoko katea galdu nuen. Aurkitu duenak Udaltzaingora eraman dezala mesedez.
- Sare-maila zabaleko urrezko pultsera galdu dut. Norbaitek aurkitu badu deitu telefono honetara. st 943 74 08 15

Oharra

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

- Zortzi kandelu Nagoren pastel gainerako! Zorionak neska haundi. Etxeko guztien partez.



- Zorionak Mikel Anakaberi, gaur 8 urte bete dituelako. Eantni haren eta aitixaren eta amaren partez.



Muxu handi hat eta ondo pasatu!

- Zorionak Maitaneri, gaur 11 urte bete dituelako. Gurasoen partez.



- Zorionak Naia Membrillerari, hilaren 9an 8 urte bete zituelako. tirakada belarritik eta muxu handi hat. Gurasoen eta anaiaren partez.



- 55-5-Sean Pilar jaio zen. 00-5-Sean zazpi astro ilaran jarriko dira. Horrelako "Phenomenoak" 500 urtetik behin gertatzen dira. Venusen babesa eta 2.000 zorion opari zuretzat!



Agurrak

- Zorionak Miren Viñeri, hilaren 17an 5 urte bete zituelako. Etxeko partez.
- Elgoibarko mutil jator hatek Mendaroko neska batzuei deditu nahi die kopa. Segi hain jator,
- Zorionak Jose Luis Eseudero-ri, hilaren 3an urteak bete zituelako. Familiaren eta bereziki Alazneren partez.
- Zorionak Nora Hadiri, maizatzen 4an urteak bete zituelako.




- Zorionak Miren Albarra-ni, atzo, hilak 4, urteak bete zituelako. Familiako- en partez.



- Zorionak gure panpoxari bere urtebetetzean familiaren partez. Urte batzuk pasatu dira eh...



- Zorionak Unairi, hilaren 1ean 2 urte bete zituelako. Baita Aneri ere 10ean 6 urte beteko dituelako. Familiako- en partez muxu handi bana.



Etxebizitzak

- Pisu txiki bat alokatu nahi nuke. Beste hatzugin pisua konpartitzeko ere prest nago. 943 76 19 59 (21:00etatik aurrera deitu)
- Etxebizitza erosi edo alokatuko nuke Elgoibara•en. (12:30etik-14:00etara deitu)
- Gela bat daukat alokatzeko. n 943 74 18 81
- Pisua alokatzen da Santa Polan. 3 gela, sukaldea, jantokia eta komuna. Hondartzatik 50 metrora. 15 eg.unetarako edo hilabete oso- rako. tr 943 74 08 05 (Rafa)
- Pisua alokatu nahi nuke ekaineko, Altzariek. tr 943 74 82 80 (Eduarne)
- Etxe txiki bat behar dut Elgoibarren. 636 73 75 70
- Etxea salgai Errosario kaleko 24. zehakian. 60m². Guztiz berri- tua. s 943 74 14 71

Ikastaro trinkoak Uztailean.

Alemanez, frantsesez eta ingelesez (malla guztiak).

Uztailaren 3tik 21era goizez eta arratsaidez.

Izen ematea ekainaren 15a baino lehen (plaza mugatuak).

Informazioa:

Tel.: 943 74 40 40

Faxa: 943 74 16 54

E-maila: ils@jet.es

HIZKUNTZA IKASTAROAK ATZERRIAN

(alemana,
frantsesa,
ingeleza)



INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES

[MH Eraikuntza
San Roke Auzoa 1 Posta Kutxatila 37
20870 **ELGOIBAR** (Gipuzkoa)



ERREMINTA
MAKINA
INSTITUTUA

Hizkuntz Soluzioak

ENJOY!

Eleste tzku zetal

Mu Itu barik, ENJOY Bestehizkurrietan-ekin,
a emanleraz, frantsesez eta Ingelese
Jolastu eta gozatuko duzu.

UZTAILA
10:00h - 13:00h

6 urtetatik 13 urte bitartekoak

TEL. 943 74 40 40
Fax. 943 74 16 54 E-mail: ils@jet.es
San Roke Auzoa, 1 Elgoibar

INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES



INSTITUTO
DE ELGOIBAR
10111AINENTA



TEL. 943 74 40 40
Fax. 943 74 16 54 E-mail: ils@jet.es
San Roke Auzoa, 1 Elgoibar

2000/2001

**Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa: Zientifiko-Tekniko aukera
Osasun aukera**

**Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa: Gizarte Zientzien aukera
Humanitate aukera**

Teknologiaren Batxilergoa

Izen ematea: Maiatzaren 2tik 12ra arte.

ERDI MAILAKO HEZKUNTZ ZIKLOAK:

Merkataritza

Ibilgailuen Elektromekanika

Karrozeria

Erizaintza Laguntza Osagarriak

GOI MAILAKO HEZKUNTZ ZIKLOAK

Administrazioa eta Finantzak

Automozioa

Ingurugiro Osasuna

Izen ematea: Ekainaren 1etik 12ra

Sarrerako frogarako izena emateko epea: Maiatzaren 12ra arte

83 profesiona I

Ingeniariak, kimikoak, fisikoak, biologoak, erizainak, ekonomilariak, informatikoak, historiadoreak, filosofoak, matematikoak, teknologoak, filologoak, maisu-maistrak, psikologoak, bulegariak, konserjeak **Eigolbar, Mendaro, Deba** eta inguruko gazteen prestakuntza jorratzen hainbat eta hainbat urtetan.

3 Batxiler mota, 4 aukera unibertsitario eta Teknologiaren Hezkuntz Ziklorako prestakuntza espezifikoa eskaintzen duen ikastetxea duzu.

Europarekin elkartrukea.

**Internet doan informatika gela guztietan eta liburutegietan.
Hizkuntzak ikasteko lagorategirik ikusgarriena.**

ELGOIBAR, MENDARO, DEBA, EIBAR, AZPEITIA, MUTRIKU eta hainbat herritako 600 gaztek giotzen dituzte gelak, pasabideak, tailerrak, gimnasioak, laborategiak, bideo gelak, informatika gelak, bulegoak..